

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

AUTOGOBERNUA

Aipatzen ari dudan programa akordioak Nafarroarentzako proiektu bat dauka, Nafarroa subiranoagoa, bere autogobernu osoagoaren ideiarekin bat datorrena.

Horrela esan digute hautestontziek.

Nafarrek, urte luzez Estatuaren aurrean Nafarroaren interesen defentsaren arduran eman den utzikeriaren ondoren, autogobernuaren defentsa eta bultzada handiagoa eskatzen digute orain.

Instantzia guztietan Nafarroaren autogobernua nafarron interes orokorrerako, eta eskusiboki nafarrona irmotasunez defendatzeko konpromisoa hartzen dut.

Gogo bizi horretan, programa akordioak banan-banan aipatu nahiko nituzkeen proposamen zehatzak ditu.

Lehenik:

- -Egungo autogobernuaren eta Estatuarekiko harremanen kudeaketa
- -Parlamentuko taldeei Hitzarmenaren negoziazioaren helburuak finkatzen eta Estatuak Nafarroari eskualdatu ez dizkion eskumenak negoziatzen parte hartzeko aukera ematea eta negoziazioetan herritarrekin gardentasunez jokatzeko konpromisoa hartzea.

Lehentasanak:

- Estatuari bosturteko berriko (2015-2019 aldiko) oinarri-urtean egin beharreko ekarpena negoziatzea eta aurrekoak ixtea (2013-2014).
- Nafarroak bere gain hartzea ikerketa, garapen eta berrikuntzaren, zirkulazioaren eta espetxeen gaineko eskumenak.
- Defizit- eta zorpetze-helburuak bete egiten diren kalkulatzeko helburuetarako, aberastasuna eta enplegua sortzen duten inbertsio estrategikoak kontabilizatzeko irizpideak aldatzeko aukera negoziatzea.

- Hitzarmen Ekonomikoaren Legean eta Autonomia-erkidegoen finantzaketari buruzko Legean berriki egindako bi aldaketen ondorioak ebaluatzea eta berrikusketarik planteatzea komeni den aztertzea.
- Defizit- eta zorpetze-helburuak betetzeko eskakizunaz gain aurrekontuen egonkortasunari buruzko legeak eskakizuntzat ezarritako gastu-araua nahitaezkoa izateari buruz negoziatzea Estatuarekin.
- Defizit-helburuak betetzen dituzten toki-entitateek soberakinak beste helburu batzuetarako erabili ahal izan ditzaten negoziatzea Estatuarekin.
- Konstituzioko 150.2. artikulua arautzen dituen eskumen-eskualdatze eta -eskuordetzeak Nafarroaren eskumen-esparruaren alde erabiltzea.
- Ahots propioa entzunaraztea Europan eta nazioarteko harremanetan eta eskumen eskusibo propioen eta autogobernuaren alde egitea Europako erakundeetan.
- Auzotasun- eta lankidetzaharreman onak izatea autonomia-erkidego mugakideekin eta EAERekiko harremanak normalizatzea eta sustatzea.
- Nafarroa Behereko udalrikiko harremanetan sakontzea, Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko herritarren arteko lotura historiko, sozial eta kultural bereziak lehengoratzeko eta estutzeko.
- Nafarroa, Akitania eta Euskadi elkarlanean aritzeko protokoloari berriro heltzea, Europa mailako aukerak hobetzeko, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sistemaren aldaketek eta estatuz haraindiko harremanen estutzeak inguruko eskualdeekin batera lan egitera (baterako politikak aplikatzera) behartzen baitute.
- Europako eskualdeek elkarrekin osatzeko prozesuaren barruan Nafarroarentzat interesgarriak diren beste instantzia batzuk areago gara daitezkeen bultzatzea; adibidez, Europa Atlantikoaren Hegoaldeko Eskualdeen Konferentzia eta Pirinioetako Lan Komunitatea –1983an sortu zen Komunitatea–.
- Frantziako eta Espainiako lurralde-entitateen arteko mugaz haraindiko lankidetzak sustatzea eta sozietate zibilak lankidetzak horrek ematen dituen aukerak aprobetxatzen parte har dezan ahalegintzea.